

MENDEKOTASUNA DUEN PERTSONAREN ZAINZAILEREN ALDI BATERAKO ATSEDENERAKO EGUNEKO ARRETA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Zaintzailea > Zaintzaileen atsedena errazteko zerbitzuak

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa](#).

Norentzat

Mendekotasuna duen pertsonaren (I., II., III. graduak) **familia zaintzailea**.

Kostua

Koordainketa duen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Baldintzak

Zaintzaile nagusia.

Atsedena beharra.

Errolda (12 hilabete).

Zertan datza?

Mendekotasunen bat duten pertsonen aldi baterako zentro edo eguneko zerbitzuetarako sarbidea eskaintzen zaie ([2.5 fitxa](#)). Normalean, familia zaintzaileak artatzen dituzte beren etxeetan. Zaintzailea bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoenean aktibatzen da zerbitzua (bajan dago, atsedena hartu behar du, oportetara joan behar du...).

Norentzat?

Mendekotasuna duten pertsonen (I., II., III. graduak) **zaintzaile nagusiak eta senideak**, zaintzan atsedena behar dutenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Mendekotasuna duen pertsona eta zaintzailea **etxebizitza eta udalerri berean erroldaturik egotea**.

Etxebizitza berean erroldatuta egotea **12 hilabetez**.

Dagokion eguneko zerbitzura sartzeko **baldintzak betetzea**.

Zaintzailea eta mendekotasuna duen pertsona **elkarrekin bizi direla egiaztatzea**, zainketak Udaleko Gizarte Zerbitzuen txostenaren bidez justifikatzen badira.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Egunean zehar zaintzaileak atsedeen hartzeko arreta Araban](#)
- [Egunean zehar zaintzaileak atsedeen hartzeko arreta Bizkaian](#)
- [Egunean zehar zaintzaileak atsedeen hartzeko arreta Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)